



LH-4. MAILA  
4. UNITATE DIDAKTIKOA  
"Lanbideak"



LH4-4UD.LANBIDEAK: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Lana, ordaindua izan edo ez, emakumeen eta gizonen jarduera beharrezko eta nagusienetako bat da. Horretaz gain, lanak pertsona legez definitzen gaitu eta gure gizarte-ingurunean kokatzen. Edonola ere, landu beharreko eduki ugari dago: enplegu ordaindua eta ordaindu gabea, enplegua hautatzea, enpleguak ikusaraztea, erantzunkidetasuna eta abar.

KONTZERTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p><b>1. Lanbide aukeraketa genero estereotiporik gabe:</b> oraindik, "emakumeen enpleguak" (langile gehienak emakumeak) eta "gizonen enpleguak" daude. Emakumeek lan baldintza txarragoak dituzte (lanaldi murriztuak, soldata txikiago, errekonozimendu gutxiago...) Emakumeek ordaintzen ez den lan gehiena egiten dute.</p>	<p><b>1. Ogibide anitzak ezagutu eta aztertu, norik egiten du zer.</b> Ikasleek ondo identifikatu dituzte emakumeek eta gizonen gehien lortzen dituzten ogibideak? Zein ogibide bai eta zeintzuk ez? Zergatik? Aldea dago nesken eta mutilen arteko erantzunetan euren egungo gustuko ogibideen artean? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→Lana jarduera garrantzitsua eta beharrezkoa da. Garapena, aberastasuna eta ongizatea dakartza, individualki zein kolektiboki.</p> <p>→Lanbidea aukeratzea garrantzitsua da. Pertsona bakoitzaren izaera, bizimodua eta gizarte-rola eratzen du.</p>
<p><b>2. Lanbide aukeraketa gaitasun eta nahi pertsonalen arabera.</b> Helburua ikasle guztiek, neska zein mutilek, formazioan eta lanean baldintza aukera eta tratu berbera izatea da. Hots, norberaren izaeraren eta gaitasunen arabera ogibidea eta enplegua aukeratu eta lortu dezatela askatasunez, eta ez sexuaren arabera.</p>	<p><b>2. Ogibideen lan gaitasunak.</b> Zein lan gaitasun errepikatu dituzte gehien ogibideetan? Neskek eta mutilek lan gaitasun berberak errepikatu dituzte? Zergatik? Ogibideak (umezaina, arrantzalea, patinatzailea...) eta beren lan gaitasunak genero marka dute (sexuarekin lotzen dituzte)? Neskek eta mutilek berdin?</p>	<p>→Lanbide asko daude, denak baliotsuak. Lanbide guztiak izan daitezke guztiontzat egokiak, norberaren sexuari erreparatu gabe.</p> <p>→Lanbidea askatasunez aukeratzeko, lan gaitasunak garatu behar. Norberaren sexuari erreparatu gabe, edozein lanbide ikas eta egin daiteke behar diren lan gaitasunak garatuz gero.</p>
<p><b>3. Edonork, neska zein mutil, edozein ogibidea (enplegua) lortu dezake baldintza egokietan gaitasunak garatuz.</b> Norberaren autonomiarako, gure gizartean: ordaintzen den lana (enplegua) izatea ezinbestekoa da; ordaindu ez diren lanak ere guztiz beharrezkoak dira; erantzunkidetasuna behar da bi lan mota hauek modu justuan banatu eta egiteko.</p>	<p><b>3. Handiak direnean lan gaitasunak garatu eta ogibidea aukeratu.</b> Ogibidea aukeratzeko erabiliko dituzten iritzietan aldea dago neska eta mutilen artean? Zeintzuk? Zergatik? Genero marka izan dezaketenak jaso dira (guraoen nahia, modan egotea, jendeak aukeratzea...)? Garatzeko aukeratutako lan gaitasun berak idatzi dituzte neskek eta mutilek? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→Lan gaitasunak ez dute sexurik. Ez daude jaiotzez "emakumeen lan gaitasunak" edo "gizonen lan gaitasunak". Emakumeek garatu dituzten lan gaitasunak gizonen modu berean ikas eta garatu ditzakete. Gizonen garatu dituzten lan gaitasunak emakumeek modu berean ikas eta garatu ditzakete.</p>

→ Ogibidea askatasunez aukeratu ahal izateko, berdintasuna garatu behar.